Nola arnasten dute gure gazteek Interneten? ikastaroa

Bilbon egin zen Gazteen Euskal Behatokiaren 2011ko Prestakuntza Planaren hirugarren ikastaroa

Nola arnasten dute gure gazteek Interneten? ikastaroa 2011ko apirilaren 12an, 13an eta 14an eman zen Gazteen Euskal Behatokiaren egoitzan. Bere helburua Interneten komunikatzeko eta hartu-emanetarako ezarri den espazio berria (web 2.0 eta sare sozialak) ulertzera ematea da.

Ikastaroa **Lorena Fernández Álvarez**ek (Web 2.0 zerbitzuetako administraria eta Deustuko Unibertsitateko IIBZren teknologia-arduraduna) eta **Aiora Kintana Goirien**ak (Gazteaukerako Community Manager eta Isuri Sormenezko Zerbitzuak elkarteko hezitzailea) eman zuten.

28 lagunek eman zuten izena kurtsoan. Beren lanbide-profilak honako hauek ziren:

- Gazteen arloko langileak (gazteentzako informazio bulego, udal, aldundi, gazteen elkarte eta beste erakunde batzuetako langileak).
- Hezitzaileak.
- Bigarren Hezkuntzako Ikastetxeetako orientatzaileak.

Ikastaroak 15 ordu iraun du, bost orduko hiru saiotan banaturik.

Ikastaroan parte hartu duten lagunen balorazioak (0tik 10era bitarteko eskalan) honako hauek izan dira, batez beste:



Iturria: Gazteen Euskal Behatokiak egina, ikastaroan parte hartu zutenen artean egindako balorazio inkestatik